

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

372/2016 Foru Agindua, abuztuaren 30ekoa, baimena ematen diona Elvira Ocio Vizuete Moreda Araba eta lekorako udaletako idazkariari, orobat Leza eta Navaridasko udaletan idazkari lanetan ere jarduteko 2016ko abuztuaren 30eko osoko bilkurarako, eginkizunen metaketa bidez

Foru Aldundi honetan aurkeztutako idazki banaren bidez, Leza eta Navaridasko udaletako alkateek eskatu dute baimena eman dakiola Elvira Ocio Vizuete Moreda Araba eta lekorako udaletako idazkariari eginkizunak metatu eta Leza eta Navaridasko udaletako idazkaritzetakoak ere betetzeko, aurtengo abuztuaren 30eko osoko bilkurarako.

Halaber, Moreda Araba eta lekorako udalen idazkia jaso dugu, bai eta bertako idazkariarena ere, eta biek adierazi dute ados daudela eskatutako izendapenarekin.

Alde horretatik, adierazi behar da uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, hauxe dioela 31. artikuluko 1. idatz zatiko azken paragrafoan:

“toki korporazioak eskatuta egingo da metaketa, dagokion funtzionarioaren eta berak destinoa duen erakundearen adostasunarekin”

Oraingo honetan, betetzen dira eginkizunak metatzea erabaki ahal izateko lege ezarritako betebeharrak, jaso baita Leza eta Navaridasko udalen berariazko eskaera, bai eta baimen eskaeraren xede den funtzionarioaren adostasuna, zeina Idazkaritza-Kontuhartzaitza azpieskalakoa den, eta aipatutako funtzionarioak lan egiten duen Moreda Araba eta lekorako udalen adostasuna ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, eskatu den metaketa baimentzeko eskumena duen organoa Arabako Foru Aldundia da, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriko 1. paragrafoan zehazten den bezalaxe.

Azaldutako guztiarengatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Baimena ematea Elvira Ocio Vizuete Moreda Araba eta lekorako udalerrien taldeko idazkariari, orobat Leza eta Navaridasko udalerrien taldeko idazkari lanetan ere jarduteko, eginkizunen metaketa bidez, gaikuntza nazionalako funtzionarioei gordetako idazkari lanpostua batera mantentzeko.

Bigarrena. Baimen honek 2016ko abuztuaren 30ean egingo den osoko bilkuran baino ez du eraginik izango.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 30a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ